

AURKIBIDEA

Irailaren 25ean, URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA.....	4
Urriaren 2an, URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA	11
Urriaren 9an, URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA	18
Urriaren 16an, URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA.....	25
Urriaren 23an, URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA	32
Urriaren 30ean, URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA.....	39
Azaroaren 1ean, SANTU GUZTIEN FESTABURUA	46
Azaroaren 2an, HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA.....	53
Azaroaren 6an, URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA.....	59
Azaroaren 13an, URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA	67
Azaroaren 20an, JESU KRISTO ERREGEA	74

Irailaren 25ean
URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA

Migratzaile eta errefuxiatuen jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Nahi duen eran eragiten duen Espirituaren presentzia eta indarra aitortzen ditugu Eukaristian. Espiritu honek eragiten gaitu eta gai egiten Ebanjelioaren poza iragartzen duten profeta eta eragile izan gaitzen.

Poz horrek ez du mugarik eta gaur Eliza osoak gogora ekartzen dizkigu *Migratzaile eta errefuxiatuak* beraien aldeko jardunaldi berezian. «Etorkizuna eraiki migratzaile eta errefuxiatuekin» da aurtengo goiburua. Mundu honetako bizitza elkarrekin pozik egitea, etorkizuneko bizia elkarrekin prestatzea ere bada. Eukaristiak laguntzen digu horretan era bikainean..

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, barkatuz eta errukituz
agertzen duzu bereziki zeure ahalmen handia;
isur ezazu etengabe gure gainera zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Geure aberastasunari eta erosotasunari begira biziitzea, senideez ahaztuta biziitzea, Jainkoari bizkarra emanda biziitzea da. Entzun dezagun Bere Hitza. Ikas dezagun Jainkoari begira, senideari begietara begira biziitzen.

Lehenengo irakurgaia (Am 6, 1a. 4-7)

Amosen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jaun ahalguztiduna: «Zoritzarrekoak Sionen lasai bizi direnak eta Samariako mendiaz fidatzen direnak! Marfilezko ohetan luze etzaten dira, artaldeko bildotsak eta ukuiluko zekorrak jaten dituzte; zitararen soinura kantuan egiten dute, doinu berriak asmatuz, David direlakoan; ardoa kopa handitan edaten dute, olio usaintsu bikainenaz gantzutzen dute beren burua. Eta ez die axola Israel herriaren hondamendiak! Horregatik, atzerrira joango dira erbestera guztien lerro-buruan, eta hor bukatuko dira horien jan-edanak eta nasaikeriak».

Erantzun-salmoa (*Sal* 146 [145], 6c-7ab. 7c-8. 9-10)

Po - za - ren po - zez gai - nez - ka dau - kat nik go - go - a ,
 Sal - ba - tzai - le dut Jaun - goi - ko - a .

- ∞. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.
 Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,
 gose direnei ogia ematen.
 Jaunak askatzen ditu presoak. ℞.
- ∞. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,
 Jaunak altxatzen konkortuak,
 Jaunak maitatzen zintzoak,
 Jaunak ditu etorkinak zaintzen. ℞.
- ∞. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,
 baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.
 Jauna errege da betieran,
 zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! ℞.

Bigarren irakurgaia (*1 Tm* 6, 11-16)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako lehenengo gutunetik

Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, pazientzian eta otzantasunean. Ekin sinesmenaren borroka jatorrari eta eskuratu betiko bizia, hartarako

deitu baitzaitu Jainkoak eta fede-aitormen bikaina egin baituzu, testigu askoren aurrean.

Gauza guztiak bizi arazten dituen Jainkoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren auzitegian aitormen bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: bete agindua akatsik gabe eta esankizunik sortu gabe, Jesu Kristo gure Jauna agertuko den eguna arte, bere garaian agerraraziko baitu Jainkoak.

Hura da Nagusi bakarra eta zoriontsua,
erregeen Erregea eta jaunen Jauna;
hura bakarrik da hilezkorra,
eta iritsi ezineko argian bizi da;
ez du inoiz gizakiak ikusi
eta ezin du ikusi ere.
Berari aintza eta agintea betiko. Amen.

Aleluia (2 Ko 8, 9b)



∞. Jesu Kristo, aberats izanik, behartsu egin zen,
bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. ∞.

Ebanjelioa (Lk 16, 19-31)

Homiliarako argibideak (Ikus Aita Santuaren mezua)

Aberats eta pobreen arteko amildegia

Jesusek, Ebanjelioko parabolan, «zenik gabeko aberatsaren» jarrera guttiz axolagabea salatzen du, («Jainkoa laguntzaile» esan nahi duen) «Lazaro edo Eleazar pobreaken» egoeraren aurrean. Aberatsa gizadiaren zati baten sinbolo da, berari interesatzen zaiona bakarrik ikusten duen eta jende askoren sufrimendua ikusi nahi ez duen jendearen sinbolo; arindu dezake, baita ezabatu ere, neurri handi batean berak sorrarazi duen sufrimendu hori. Aberats horri izenik jarri ez dionean, agian gutako bakoitzari esan nahi digu, begira dezagula noren alde gauden gu, zer-nolako logika darabilgun geure bizitzan.

Noren alde daude hormak edo hesiak eraikitzen dituzten horiek, milaka pertsonari gutxieneko segurtasun- eta bake-lekura iristeko eragozpenak jartzen dizkieten horiek? Heriotza eragiten die eta hilerri bihurtzen gure itsaso eta nazio-mugak; eta pobretasun, gerra eta bazterrera gelditzetik iheska dabilen jendeari jartzen dizkiete oztupoak. Zein dira oztopatzaile horiei beren axolagabekeria, gezurrez, aurrejuzgu eta okerreko iritziz, eta jokabide xenofoboz laguntzen dietenak? Aurten Elizaren kanpainako goiburuak dioenaren harira, «Etorkizuna eraiki migratzaile eta errefuxiatuekin»; izan ere, kontuan izan behar dira gure beldurrak, karitatea, gizatasuna, bazterrera uztea, azkeneko lekuan jatzea, pertsonaren duintasuna eta pertsona guztiena... Azken batean, mundu honetan Maitasuna den Jainkoa errege izatea da kontua.

Jesusek dioenez, diru-goseak eta axolagabekeriak egindako zuloaren alde batean dago Jainko Aita zalantzarik gabe: biziaren, errukiaren, gizatasunaren, eskubideen eta zuzentasunaren aldean; «Abrahamen altzoan», irudi judutarraren arabera. Bestaldean daude sortzen joan diren infernua, konponduenezko zatiketak, sufrimendu saihetsezinak. Ez du esan nahi Jainkoak alde horretan daudenenganako ardurarik ez duenik; dei egiten die eta ohartarazten hainbat profetaren bidez, gaurko lehenengo irakurgaietan Amosek egiten zuen bezala. Bere Semea bidaliko die, eta baztertuen eta

bidegabekeriaz erabiliak izan direnen ondorioa emango die. Baina Seme honen piztuerak itxaropena berpiztuko dio askori. Beste zenbaitek, ordea, ez du ikusi nahiko bere etxeko ate aurrean lurrera eroria dagoen senidea, nahiz eta piztuera askoren testigu izan.

Garbi dago zein aldetan jartzen diren Jesusen jarraitzaileak. Frantzisko Aita Santuak, beraren aurreko aita santuek bezalaxe, Eliza osoaren izenean, hori aldarrikatzen jarraitzen du: «*Gizakiaren duintasuna eta guztion ongia bere abantailei uko egin nahi ez dieten batzuen lasaitasunaren gainetik dago. Balio hauek kaltetuak direnean, beharrezko da profeta-hitza*» (EG 218).

Agian, nik zer egin dezaket –esango diogu geure buruari– aberastasunaren ate ondoan lurrean etzanda eta ahaztuta geldituko diren beste Lazaro batzuk sor ez daitezten? Hasteko, hau da geure buruari egin behar diogun galdera: nire bizitza, nire pertsona, nire jokabideak, neure buruari begira al dauzkat, jarrera guztiz egoista izanez? Zabalik al dauzkat ateak, begiak, eskuak neure inguruan gertatzen denaz konturatzeko? Eta galderarekin jarraituz, ezer egiten al dut harrera ona egiteko, harremanetan jartzeko, bestelakoak direnekin elkarteko egitarau txiki batzuetan parte hartzeko, ni nagoen tokian, neure parrokan, neure auzoan...? Eta azkenik, senidetasun-sortzaile al naiz, edota urruntasuna sortzen dut? Zubiak ala hormak egiten ditut?

Jainkoari esker, asko dira Elizan eta Elizatik kanpo ere egunero lanean ari direnak, gehienetan lan isila eginez, mestizoa eta desberdina den gure mundu honetan inor bazterrera utzia gerta ez dadin. Lazaroren antzeko direnen aurrean bestaldera begiratzen ez dutenak, baizik eta zutitzen eta beste askorekin batera ibiltzen laguntzen dietenak, zartatua zegoen giza ehuna horrela konponduz. Horregatik, gaur Jainkoari eskerrak emateko eguna ere bada laguntzaile horien guztiengatik.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Elizaren alde, bere ondasunak asmo pastoral eta sozialen zerbitzuan erabil ditzala, eska diezaiogun Jaunari.
- Ekonomilariak beren plangintzak egitekoan gogoan izan dezatela beti, pertsonaren osotasunaren garapena izan behar dutela helburu, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure gizartearen oparotasun eta leunkeriazko giroan bizi diren aberatsak kontura daitezela, badirela beren banketeetako ate ondoan horien apurren zain dauden Lazaro pobreak, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotza ez dadila gogortu, baizik eta Jainkoak munduko pobreen bidez egiten digun deia entzun dezagula, eska diezaiogun Jaunari.

Gure Jainkoa, behartsua bere izenez deitu eta aberatsa berriz ezezagun gertatzen zaizuna; entzun gure otoitzak, agertu Zure justizia zapaldui eta emaguzu, Zure hitza entzutean sinets dezagula, hilen artetik berpiztutako Kristo Jaunak gu ere onartuko gaituela gure bizitza bukatzean Abraham gure aitaren altzoan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko biziaren sakramentu honek
berri ditzala, Jauna, gure gorputz-arimak,
zure Semearen heriotza aldarrikatuz
berarekin bat egiten dugunok,
haren piztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 2an
URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Elizaren Senarra da Jauna eta Eukaristia bakoitzean egiten gaitu bere biziaren ogiaren partaide. Familia baten kide gara, Jainkoa goastera elkartzen den familia baten kide: gure harremanetan leialtasun, esker on, barkamen eta, batez ere, barkamen jarrera izateko deia eta dohaina jasotzen dugu gaur ere.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garramatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa, ontasun guztien iturria,
guk merezi eta uste baino neurri handiagoan
betetzen dituzu gure eskariak;
isur ezazu gugana zeure errukia,
askatu gure bihotza beldur guztitik
eta eman eskatzera ere ausartzen ez garena.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Fedea, sakon-sakoneko eta uste onez beteriko fedea agertzen da lehenengo irakurgaian. Ongi uztartzen da Ebanjelioak dienarekin: fedearen dohaina, arduraz eta esker onez onartu behar da.

Lehenengo irakurgaia (*Ha* 1, 2-3; 2, 2-4)

Habakuken profezia liburutik

Noiz arte, Jauna, ari behar dut Zuri erreguka, Zuk entzun gabe? Noiz arte ari behar dut oihuka gogorkeriaren aurka, Zuk salbatu gabe? Zergatik ikusarazten didazu horrenbeste bidegabekeria? Nola egon zintezke zapalketari begira? Hondamen eta gogorkeria ugari aurrean, haserreak eta borrokak nonahi.

Orduan, Jaunak erantzun zidan: «Ildatz ezazu agertuko dizudana, ezarri taulatxoetan, erraz irakurtzeko eran. Ikuskari hau ez da beteko epea burutu arte, baina badoa helbururantz, ez du huts egingo; luzatzen bada, zuk itxaron, berandu gabe iritsiko baita. Harroak ez du bakerik bere baitan; zintzoa, ordea, bere leialtasunari esker biziko da».

Erantzun-salmoa (*Sal* 95 [94], 1-2. 6-7. 8-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na-ren min-tzo-

a: "Ez go-gor-tu zu-en bi-ho-tza".



- ∞. Zatozte, degiogun poz-oihu **J**auhari,
 poz-irrintzi, salbatzen gaituen hark**ait**zari.
 Aurkez gakizkion eskerrak **e**manez,
 degiogun jai txaloka eta **k**antari. ∞.
- ∞. Zatozte, gurtu dezagun ahus**pe**zturik,
 belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **a**urrean.
 Bera baita gure Jainkoa, ‘
 eta gu hark larraturiko **h**erria,
 haren zainpeko **a**rtaldea. ∞.
- ∞. Entzungo ahal duzue gaur haren **a**hotsa:
 «Ez gogortu bihotza Meriban **b**ezala,
 Masako egunean basamortuan **b**ezala,
 tentatu egin baininduten zuen **g**ura^soek,

Bigarren irakurgaia (2 Tm 1, 6-8. 13-14)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

Har itzazu jarraibidetzat, Kristo Jesusengan oinarritzen diren sinesmenaz eta maitasunaz nigandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Zaindu gordailu eder hau, gudan bizi den Espiritu Santuaren indarraz.

Aleluia (1 Pe 1, 25)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Jaunaren hitzak betiko dirau.
Hitz hau zuei hots egin zaizuen Berri Ona da. √.

Ebanjelioa (Lk 17, 5-10)**Homiliarako argibideak***Fedea bizi*

Fedea eta kultura bereiztea da garai honetako drama, zioen Paulo VI.ak. Fededunak ez gara gai ebanjelioaren balioekin jantzitako kultura bat sortzeko. Fededun ez direnek nahi dituzten eta irrika dituzten gauzak nahi ditugu. Desberdina da sinesten duguna eta bizi duguna. Jainkoak apenas duen garrantzirik gure bizitzan. Ez dugu bizirik eta jardunean esperimentatzen. Ez da gure konfiantza merezi duen norbait, ez gara harekin fidatzen. Gaur egungo gizakiak eskarmentu handia du, bai, eta ez da bere senideez ere fidatzen ia. Jainkoaren maitasunaren seinalerik ikusten ez duenez, ez da harekin fidatzen, ez du harengan sinesten. Bere kabuz saiatzen da aurrera irteten, besteengandik ezin baitu asko espero.

Askotan, fedeak ez du pertsonaren bizitza erabat aldatzen, ez beste bizimodu bat, erabat kontrakoa, eramateraino, banakako, familia eta gizarte gisa. Fededuna ikusi orduko identifikatzen laguntzen duten

seinale gutxi ditugu. Arazoa ez da berria. Israelgo herriaren historian ere ezaguna zen arazoa. Ebanjelioan ere askotan ageri da **fedea falta** edo fede eskasia, ez jendearena, oro har, baita **ikasleena ere**. Haiek ere jabetuko dira horretaz, eta, horregatik, euren fedea handitzeko eskatuko diote Jesusi, harenganako euren sinesmena gehitzeko (*Lk* 17, 5-10). Bestela, erregai faltagatik itzaltzeko arriskuan dagoen sugarra bezalakoa da fedea.

Arazo horren jakitun zen San Paulo, eta, horregatik, eskuak ezartzean emandako dohaina indarberritzeko eskatuko dio Timoteo ikasleari (*2 Tim* 1, 6-8. 13-14). Gure fedea bizitzeko moduari dagokionez, koldarregi ageri gara kristauok gaur egun. **Energia, maitasuna eta zentzua** behar dira. Baina batez ere, ez dugu beldurrik eduki behar besteen aurrean kristau gisa agertzeko.

San Lukasek ikaslearen **zerbitzuzko jarrerarekin** lotzen du fedea. Ez da fede teoriko hutsa, beraz, ezagutzarekin ohituta eta liluratuta zegoen Greziako munduaren tentazio izan zitekeena. Fede biblikoa da, bizitzan Jainkoaren borondatera itsu-itsuan makurtzeko fedea. Zerbitzariak bezala, agindutako guztia bete behar du fededunak. Eta arruntena hori dela pentsatu, ez dela aparteko ezer. Zerbitzariak nagusiak agindutakoa bete behar du. Dena oso ongi beteta ere, zerbitzari xume bat baino ez da izango beti.

Gaur egun, alienatzailea eta gizakiaren errealizazioaren kontrakoa eman dezake ikuspegi horrek. Kontrakoa da, ordea. Gizakiak Jainkoak agindutakoa betetzen duenean, ez da bere buruaz kanpoko eskaera batera makurtzen. Jainkoa presente dago gizakian, eta Jainkoak esandakoa edo iradokitakoa egitea gure esentzia intimo eta ederrena gauzatzea da, maitatzeko libre sortutako gizakiarena. Hori da Jainkoaren distira, gizakiak **bitza oparua** edukitzea.

Itun Zaharrak ere jasotzen du errealitate hori. «Zintzoa bere fedeari esker biziko da» dio profetak (*Hab* 1, 2-3; 2, 2-4). Jainkoa denez

biziaren hasiera eta jatorri, maitasunez eta borondatez Jainkoarekin bat egiten duen artean biziko da gizakia, Jainkoak niretzat nahi duena nahi bitartean. Biziaren iturritik aldenduz gero, lanez, hondamendiz eta borrokaz betetako errealitate latza izango da gizakiarena. Eukaristia honek **fedearen misterioan** sar gaitzala benetan, Kristorekin bat egiteak geure bizitza alda dezan eta biziki jarrai diezaiogun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Espirituak gugan sortzen duen seme-alabatzako konfiantzaz beterik, zuzen diezazkiogun gure eskariak Jaunari:

- Elizaren alde: fededun guztien testigantza biziarekin, ager diezaiela gizaki guztiei Jainkoaren salbamena. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri agintarien alde: izan dezatela argitasuna gizaki guztien arteko bakea, ongizatea eta erlijio-askatasuna bermatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gerra eta ezina nozitzen duten herrien alde: indarkeria, suntsiketa eta mina alde batera utzi eta bizikidetzaren alde joka dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gaudenon alde: Jainkoak argi ditzan gure bihotzeko begiak, jaso dugun deiaren handitasuna ikusteko. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, Jainko ahalguztiduna, mostaza hazia adinako fedea dutenen otoitzak entzuten dituzuna, emaguzu bihotz apala, Zure erreinuaren handitasunean landu ondoren Zure maitasunaren ederra goratuko duten zerbitzari apalak senti gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna, sakramentu honetan parte hartzeak
ase dezala Zurekiko dugun gose-egarria
eta eralda gaitzala hartu dugun horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 9an
URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoa beti mintzo zaigu zuhertasun eta jakinduriaz. Hitz hori entzuteak Kristori jarraitzen laguntzen digu, askatasunez eta eskuzabaltasun osoz, loturarik gabe eta Jainkoaganako uste onez. Eukaristiaren alderdi bikainak dira hauek ere.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen digu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitezen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jauna, izan dezagula beti zure grazia,
bai aldez aurretik, bai bidelagun;
Zuk eutsirik, on egiteko prest egon gaitezen beti.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jaunaren salbamena gauza txikienetan sumatzen ikasi behar dugu; benetako salbamena Jainkoa aurkitzean datza eta Haren erreinuaren alde lan egitean. Entzungo dugun Jainkoaren Hitzak laguntzen digu Jainkoa gurekin dela aitortzen.

Lehenengo irakurgaia (2 *Erg* 5, 14-17)

Erregeak bigarren liburutik

Egun haietan, jaitsi zen Naaman siriarra Jordan ibaira eta zazpi bider murgildu zen, Jainkoaren gizonak agindu bezala, eta legenarra desagertu eta haurtxoarena bezain garbi gelditu zitzaion haragia.

Orduan, Jainkoaren gizonagana itzuli zen bere lagun-talde osoarekin eta, haren aurrean zutik, esan zion: «Orain badakit ez dela munduan Jainkorik Israelena baizik. Otoi, onar ezazu zerbitzari honen esku-erakutsia». Eliseok erantzun zion: «Ala Jauna, zerbitzari nauena! Ez dut ezer hartuko». Naamanek hartzeko eta hartzeko esan arren, Eliseok ez zuen hartu nahi izan.

Orduan, Naamanek: «Ezezkoan zaudenez gero, utz iezaiozu, bederen, zeure zerbitzari honi, bi mandok eraman dezaketen lurra hartzen; gaurtik aurrera ez baitio zure zerbitzariak erre-oparirik eta sakrifiziorik inolako jainkori eskainiko, Jaunari izan ezik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3ab. 3cd-4)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
a - gan - di - ko ga - rai - pe -

- ∞. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **eskuinak**,
bere beso **santuak**. ∞.
- ∞. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **aurrean**.
Ez da ahaztu bere maita**sunaz**,
Israel herriari dion leial**tasunaz**. ∞.
- ∞. Munduko bazter guztiek ikusi dute
gure Jainkoaren gara**ipena**.
Egin irrintzi Jaunari, lur **oso**a,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soinua**. ∞.

Bigarren irakurgaia (*2 Tm* 2, 8-13)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Izan gogoan Jesu Kristo, Daviden jatorritik sortua, hilen artetik piztua. Hau da nik irakasten dudana Berri Ona eta honengatik nago neketan, gaizkile bezala katez lotua; baina Jainkoaren hitza ez dago katez lotua. Horregatik, dena jasaten dut

Jainkoak aukeratu dituenen onerako, horiek ere Kristo Jesusek ematen duen salbamena eta betiko aintza irits ditzaten.

Sinesgarria da adierazpen hau:

Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara;
harekin sufritzen badugu, harekin izango gara errege;
hura ukatzen badugu, hark ere ukatuko gaitu;
gu leialak ez bagara ere, hark leial dirau,
ez baitezake bere burua ukatu.

Aleluia (1 Ts 5, 18)

A - le - lu - ia, a le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∕. Eman eskerrak beti,
horixe nahi baitu zuentzat **Jainkoak**
Kristo Jesusengan. ∕.

Ebanjelioa (Lk 17, 11-19)

Homiliarako argibideak

Fedeak salbatu zaitu

Denok izan dugu, gure bizitzan, erabakigarria izan den topaketa bat, gure bizitza aldatu duen bat, askatasun eta sormen iturri izan den topaketa bat. Ebanjelioa, Berri Ona den heinean, hainbat pertsonak Jesusekin izandako **topaketen** narrazioa da. Topaketa batzuetan, Jesusena izan da ekimena, pertsona jakin baten bila joan baita. Beste

batzuetan, salbazioa Jesusengan bilatzen duten pertsonak bilatu dute topaketa. Pertsona bakoitzarekin topatzeko gai da Jesus, zintzoarekin eta bekatariarekin, esker onekoarekin eta txarrekoarekin. Jesusek presente egiten du Jainkoaren maitasuna. Zintzoei eta bekatariari erakusten zaien maitasuna.

Gaurko ebanjelioan, hamar legendun sendatuko ditu Jesusek (*Lk* 17, 11-19). Pertsona horien beharra ikusita, Jesusek ez du eskertuko dioten edo ez kalkulatu. Azkenean, bederatzi sendatu egingo ditu, eta bat **sendatu eta salbatu** egingo du. Grezieraz, bi esanahi horiek ditu aditzak. Fedeak salbatzen gaitu; fedea sendatzen gaitu.

Hamar legendun sendatu ditu Jesusek. Jainkoaren onura esperimentatu dute, har bidalitako Jesusen bitartez. Eta hala eta guztiz ere, **naturalizat** jo dute, zor balitzaie bezala. Ahalik eta lasterren garbi geratzeko kezkatuta, ez ziren geratu Jesusi eskerrak emateko. Sendatu eta gero ere, ez dira euren ongileaz gogoratuko, legendun bat izan ezik, samariar bat, atzerritar izateagatik paganotzat zutena. Paganoak beste bederatzi juduek baino erlijiozentu handiagoa erakutsiko du. Samariarra Jainkoari eskerrak emanez itzuli zen, Jesusi eskerrak ematera.

Jesusek samariarra goratu eta honela esango dio: fedeak salbatu zaitu. Beste bederatziak sendatu zituen, baina ez zituen salbatu. Osasuna berreskuratu zuten, baina ez **bizitzaren zentzua**, Jainkoarekiko harremanean dagoena eta Jesusek presente egiten duena. Fededun kristau bihurtu da samariarra. Lukasek atsegin handiz erakusten du bere irakurleek, jatorriz pagano zirenek, kristau fedea hartu izana eta juduek, berriz, salbaziora deituta zeudenek, baztertu egin izana.

San Paulo judua zen, eta **Jainkoaganako leialtasuna** azpimarratuko du, izakiaren fedegabetasunaren aurrean. Jainkoa leial da beti, ezin baitu bere burua ukatu (*2 Tim* 2, 8-13). Jesus da Jaikoari «ez» esan

dion eta esaten dion bekatariari Jainkoak ematen dion behin betiko baietza. Jesusengan sinestea horren heriotzarekin eta piztuerarekin bat egitea da.

Lehen irakurgaiak beste legendun baten sendatzea erakusten digu, Naaman jeneral siriarrarena (2 *Erg* 5, 14-17). Fededun izateko haren prozesua motela izan zen, baina profetaren hotza bete eta sendatu orduko, esker ona sentituko du bihotzean. Profeta sarituz erakutsi nahi du, baina konturatuko da hark doan eman diola hark ere doan jasotakoa. Orduan, juduen **fedearen edertasuna** aurkituko du, eta bere herrian eskaini nahiko du. Horretarako, Israelgo lur pixka bat eramango du, Israelgo Jainkoa gurtzeko. Heren mentalitate paganoak Israelgo jainkoarekin lotzen zuen Israelgo lurra. Gizakien mugek ez dutela Jainkoa mugatzen ikasi beharko du, oraindik.

Kristo Jesusen salbazioagatik Jainko Aitari eskerrak emateko ekintza da gure Eukaristia. Gure bizitzan Jainkoarengandik etengabe jasotzen ditugun dohainetan bizi dugu salbazioa. Jainkoari eta mesedeak egiten dizkiguten pertsonen gure bihotza esker onekoa izan dadin eska diezaiegun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunarenganako uste onez beterik egigun otoitz:

- Kristau izateagatik sufritzen dutenek izan dezatela Ebanjelioarekin leial izatearen pozak ematen duen barne-bakea. Eska diezaiegun Jaunari.
- Nazioetako arduradunek izan dezatela egiazaletasuna eta justizia, denon ondasunak zaindu eta banatzerakoan. Eska diezaiegun Jaunari.
- Lurra landuz bizi direnek izan dezatela bere lanaren fruituak egoki jaso eta banatzeko bidea. Eska diezaiegun Jaunari.

—Igandea ospatzera biltzen garenok izan dezagula geroaren gogoz, oraina Jainkoarekin bat eginda bizitzeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

Oraingo eta geroko bizitzaren sorburu zaren Jainkoa entzun Zure Elizaren otoitzak eta egizu ez dezagula gorputzeko osasuna bakarrik bilatu; igande honetan bildu garenok gora zaitzagula fedearen dohainagatik eta Eliza osoa izan dadila Kristogan ari duzun salbamen egintzaren testigu. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan

Jaunartze-ondorengo otoitza

Gutziz ahaltso zarenez, Jauna, apalik eskatzen dizugu, zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok parte izan dezagula jainkozko zure izatean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 16an
URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren gurutzeko eskaintza gertaberritzen dugu Eukaristian. Horrexegatik, Jesusi jarraitzeak Berak egindako bide bera egitea esan nahi du: maitasun-, apaltasun-, eta Jainkoaren nahiarekiko obedientzia-bidea, baita norbere bizitza eskaintzeraino ere. Ahulak eta bekataria izanik ere, konfiantza osoz gatoz Aitareten etxera: bera gure alde dago, gu salbatzen ari da.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

- Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
egizu, gure gogoia Zuri emana egon dadila beti,
Zu, Jaun handi hori,
bihotz leialez eta garbiz zerbitza zaitzagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Otoitza, hau da, Jainkoarekin harreman bizia izatea beharrezkoa da. Fedean irautea, konfidantzaz bizitzea da, Jainkoarekin bat eginda, bere argitan, bere Hitza entzunez. Jaso dezagun arretaz bere mezu salbagarria.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 17, 8-13*)

Irteera liburutik

Egun haietan, amalektarrek israeldarrei eraso zieten Refidimen. Orduan, Moisesek esan zion Josueri: «Aukeratu zenbait gizon eta atera amalektarren kontra borrokara. Bihar muinoaren gainean zutik egongo naiz ni, Jainkoaren makila eskuan».

Moisesek esan bezala egin zuen Josuek eta amalektarren kontra borrokari ekin zion. Bitartean, Moises, Aaron eta Hur muino gainera igo ziren. Moisesek besoei goian eusten zienean, israeldarrak ziren garaile; behera erortzen zitzaizkionean, ordea, amalektarrak.

Moisesi besoak nekatu zitzaizkionean, harri bat hartu eta azpian ipini zioten, bertan eser zedin. Aaronek eta Hur-ek haren besoei eutsi zieten, alde banatatik. Honela, Moisesen besoek tinko iraun zuten,

eguzkia sartu arte. Eta Josuek amalektarrak garaitu zituen eta ezpataz suntsitu.

Erantzun-salmoa (Sal 121 [120], 1-2. 3-4. 5-6. 7-8)

Ze-ru ta lu- rren E - gi - le - a, du - gu la-gun
ta zain - tzai - le - a.

- ∞. Mendietara ditut jasotzen **begiok**:
nondik etorriko ote zait **laguntza**?
Laguntza Jaunagandik da**tor**kit,
zeru-lurrak egin zituen ha**re**ngandik. ∞.
- ∞. Jaunak ez dizu erortzen **utziko**,
zure zaintzailea ez **dago** lo.
Ez da inoiz lo **egoten**
Israelen zaint**za**ilea. ∞.
- ∞. Jauna duzu zaintzaile, Jauna **itzalpe**,
alboan du**zu** beti.
Ez dizu gaitzik egingo eguzkiak **egunez**,
ezta ilargiak **ere** gauez. ∞.
- ∞. Jaunak zainduko zaitu gaitz guz**ti**tik,
zainduko du zure **biz**ia.
Jaunak zainduko ditu zure ibilera guz**ti**ak
oraindanik bet**i**daino. ∞.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 3, 14 – 4, 2)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Iraun sendo, ikasi eta sinetsi duzun guztian; hartu gogoan norengandik ikasia duzun eta Liburu Santuak umetandik ezagutzen dituzula. Liburu Santuek eman diezazukete, Kristo Jesusenganako sinesmenaren bidez, salbamenera daraman jakinduria. Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da, eta irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria; horrela, Jainkoaren gizona guztiz hornitua gertatzen da eta edozein eginbehar onetarako prest.

Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: hots egin Jainkoaren hitza; ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta aholkatu, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz.

Aleluia (Hb 4, 12a. d)



- ∞. Bizia da Jainkoren hitza,
 bizia eta eraginkorra,
 eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. ∞.

Ebanjelioa (Lk 18, 1-8)

Homiliarako argibideak

Zuzentasuna nagusituko da, Jainkoari esker

Egiazko askatasuna eta giza eskubideak aitortuko dituen gizarte bidezkoago baten bilaketa, izan da, neurri handi batean, garai modernoko historiaren motorra, anaitasunezko gizarte baten bilaketa, alegia. Kristauek abentura horretan parte hartu dute, eta ikusi dute **ahulenen eta beharrean daudenen alde** egiten duen heinean dela gizartea bidezkoa eta bihozbera.

Sortu dugun gizarteak gazteak eta adinekoak alde batera uztea gaitzetsi ohi du Frantzisko Aita Santuak. Kristauok ez dugu utzi behar beste mundu bat posible den itxaropena lapur diezaguten. Otoitzaren bidez eutsi behar diogu. Erregetza etor dadin eta Jainkoak berak hautatuekin justizia egin dezan **egin dute otoitz** kristauek, eta otoitz egiten dugu, oraindik ere. Batzuei, Jainkoaren existentziaren kontrako argudio erabakigarriena iruditzen zaie mundu bidegabe hori, eta uste dute otoitz egitea denbora galtzea dela; beste batzuentzat, berriz, bidegabeen aurkako indarkeriarik gabeko **arma boteretsua** da otoitza.

Munduaren historia Jainkoaren esku dagoela eta zentzu bat duela aitortzen du gure fedeak. Ez da gertakari batzuen jarraipen hutsa, arrain handiak txikia jatea, edo, Unamunok esaten zuena: «Jainkoak gaiztoei laguntzen die, onak baino gehiago badira». Jainkoarentzat ez dago ezinezkorik eta bere aldekoen ongiaz arduratzen da Hura (Ir 17,8-13). Gaurko parabolak gizarte bizitzatik hartutako adibidea dakar (Lk 18,1-8). Zoritxarrez, ohikoa da beti. Pertsona asko etsita sentitzen dira **justiziaren bila**. Maila guztietara jotzen dute, eta ukatu egiten diete beti. Gutxi batzuek pentsatzen dute, ordea, Jainkoarengana jotzea eta euren kausa Hari eskatzea. Ebanjelioko alargunak ongi islatzen du **ahulek** indartsuen zinismoaren aurrean sentitzen duten **ezina**. Azkenean, justizia egingo du epaileak,

emakumea begi bistatik kentzeko eta egunez egun manifestazio edo eserialdi bat jasan behar ez izateko.

Ebanjelioak argi eta garbi dio epailea ez dela justua, Jainkoa ez bezalakoa dela. Jainkoak justizia besterik ezin du egin bere hautatuekin. Eta azkar egingo du. **Jainkoaren Erregetza** datorrela sinesteak justizia ezartzea posible dela pentsarazten du. Ez da automatikoki gertatuko, noski; gizakiek ahalegindu behar dute justizia eraikitzen.

Baldintzetako bat adierazten du ebanjelioak: **fedea edukitzea**. Mundua alda daitekeela sinetsi behar da, beste mundu bat eraiki daitekeela. Horixe adierazten zuen alargunak ere, justizia etengabe eskatuta. Ez zuen onartzen, inolaz ere, gauzak aldatu ezin izatea, gauzek zeuden horretan jarraitzea. Etengabe eta sinetsita otoitz egitea da Jainkoaren aurrean erreklamatzeko. Jainkoak **historia etengabe aldatzeko** ematen du konfiantza, boteretsuak euren tronuetatik kentzeak ea pertsona xumeak goratzeak.

Fedea hoztu egiten da, ordea, eta Jainkoaz ahazten gara. Hori da arazoa. Beharrezkoa da fedea eta **otoitzarekiko** konfiantza elikatzea. Ebanjelioko azken galderak zalantzan uzten gaitu guztiok: Gai izango ote gara fedeari Gizonaren Semea etorri arte eusteko? Hark ezarriko du behin betiko justizia, baina ari da dagoeneko poliki-poliki ezartzen, pertsona zuzen guztien laguntzarekin.

Eukaristian, Semea, mundu honetako boteretsuen biktima, hilobitik atera zuen Jainkoaren ekintza askatzailea eguneratzen dugu. Piztueraren indarrak mundu bidezkoago baten alde, anaitasunezko mundu baten alde egitera eramán gaitzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak bazterten dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Moisez Zure zerbitzariaren bidez garaipena eman zenion zeure herriari, ikus otoitzean bildua dagoen Eliza eta egizu Israel berriak aurrera egin dezala beti gaitz guztiak gaindituz, Zure zain bizi direnen alde egingo duzun ordua iritsi artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, eukaristi ospakizun honek
zeruko bizia gozarazi digu aldez aurretik;
izan dezagula beraren laguntza
lur honetan zure ondasunak gozatzeko,
baita argia ere betikoak maitatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 23an
URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

DOMUND: Nire lekuko izango zarete

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Bataioko uretara ekarriak eta fedez argituak izan ginenok Jesus Jauna aitortzen dugu gure bizitzaren askatzaile eta poz. Hau da argi bila dabiltzaneren batzarra, hau, ikusi nahi dutenen mahaia.

Urriako azken-aurreko igande honetan DOMUND, misio igandea ospatzen dugu aurten ere, goiburu honekin: «Nire lekuko izango zarete». Berririk onena dugu esku artean: Kristok, Jainkoaren Semeak, neurrigabe maite gaituenak, gugatik eman du bere bizia. Hori bazter guztietara eramateko misioa, eginkizuna, jaso dugu.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

- Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
sendotu gugan sinesmena, esperantza eta maitasuna;
eta egizu, hitzematzen diguzuna lortu ahal izateko,
maita ditzagula Zuk aginduak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizartearen begietan ezer gutxi balio dutenak, baztertuak eta behartsuak: horiek ditu gogokoen Jainkoak. Barnera dezagun bere Hitza, bere antzeko egin gaitzan.

Lehenengo irakurgaia (*Sir* 35, 15b-17. 20-22a [gr. 12-14. 16-18])

Siraken liburutik

Epailea da Jauna, eta ez du harengan eraginik inoren izenak: ez du alderdikierarik egiten behartsuaren contra eta entzuten du zapalduaren eskaria. Ez du umezurtzaren erregua mespretxatzen, ezta kexati doakion alarguna ere.

Jaunak gogo onez hartzen du bera zerbitzatzen duena, eta honen eskaria zeruraino iristen da. Apalaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu eta ez du onik bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen, Goi-goikoak esku hartu eta errugabeei justizia egin arte.

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33] 33, 2-3. 17-18. 19 eta 23)

Txas-ta e-za-zu - e ta i - kus zein sa-mur den Jau-na.

- ∞. Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna,
nire ahoan beti haren gorespena.
Harro nago Jaunarekin,
entzun bezate apalek eta poztu bitez. ∞.
- ∞. Gaizkileen aurka Jaunaren aurpegia,
lurretik ezabatzeko haien oroitzapena.
Deiadar egiten dute zintzoek, eta Jaunak entzun,
larrialdi guztietatik libratzen ditu. ∞.
- ∞. Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei,
salbatzen ditu barne-eroriak.
Jaunak askatzen du bere zerbitzarien bizia,
harengan babesten direnek ez dute zigorrik izango. ∞.

Bigarren irakurgaia (*2 Tm* 4, 6-8. 16-17)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Aleluia (2 Ko 5, 19a. c)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. ∇.

Ebanjelioa (Lk 18, 9-14)

Homiliarako argibideak

Apala goratua izango da

Pertsona askok ez dute otoitz egiten. Ez otoitz egiten ez dakitelako edo otoitzak gogoratzen ez dituztelako bakarrik, denbora galtzea iruditzen zaielako baizik. Baliteke Jainkoan sinestea oraindik, baina ez dute harekin inolako harreman pertsonalik, auren bizitzarekin ez duela zerikusirik uste baitute. Bere fedearen arabera otoitz egiten du bakoitzak, duen Jainkoaren irudiaren arabera. Farisauak teologia farisearraren arabera otoitz egiten du (Lk 18, 9-14). Baliteke ebanjelioek judu talde horri buruz transmititzen diguten irudia

kristau-judu polemikak baldintzatuta egotea. Jesusen garaiko fariseoek zintzoak ematen zuten, eta, kasu gehienetan, benetako harremana zuten Jainkoarekin, gainera.

Ebanjelioak aipatzen duen fariseoa garai orotako farisearra da eta erlijio guztietan eta erlijiorik ez dutenetan ere badago. Horixe bera gertatzen da zergalari edo publikanoaren irudiarekin ere, bekatariaekin, alegia. Farisearra ezin hobea da Legearen aurrean eta, horregatik, justifikatuta dago Jainkoaren aurrean. Eskerrak emateko egiten duen otoitza bere buruari eskaintzen dio, Jainkoari baino gehiago. Bere Jainkoa legalismoa da. Farisearrak bere farisear bizitzan bezala otoitz egiten du, tente, aurrean, denek ikusteko moduko lekuan. Bere jainkoaren aurrean ez jartzen, baizik eta bekatariekin konparatzean, publikanoarekin, agertzen da haren Jainkoaren faltsukeria. Farisearraren Jainkoa Legaren alde eta bekatarien aurka dago. Ez duenez bere burua bekataria aitortzen, bidezko baizik, ez ditu Jainkoaren **barkamena** eta justifikazioa jasotzen. Horregatik, bere bekatuarekin itzuliko da etxera, bere otoitzarekin larriagotutako bekatuarekin.

Publikanoak, berriz, publikano modura otoitz egiten du, bekataria modura. Atzean geratzen da, kolpeak ematen ditu bular aldean, eta apaltasunez eskatzen dio barkamena Jainkoari. Publikanoa Jainkoaren aurrean kokatzen da, ez Legearen aurrean. Bekatariei abegi egiten dien Jainko errukitsu batean sinesten du. Bere parabolan, bekatariei abegi eginda eta haiekin bazkalduta presente egiten den Jaikoaz mintzo da Jesus. Publikanoak bekataria aitortuko du bere burua eta barkamena eskatuko du, eta Jainkoak barkatu eta justifikatu egingo du, pertsona zuzen bihurtuko du. Guztiz **eraldatuta** itzuliko da etxera. Jainkoak bere otoitza entzun du, bere barkamen eskaera onartu du (*Si* 35, 12-14. 16-18). Jesus bezala, barkamen sakramentu izan behar du Elizak, ez du inor zigortu behar.

San Lukasen ondorio orokor bat ateratzen du bere elkartearantzat. «Bere burua goratzen duena apaldua izango da, bere burua apaltzen duena goratua izango da». Santa Teresak «egian ibiltzea» deitzen zuen **apaltasuna** bizitzea da gakoa («humildad es andar en verdad»). Gure egoeraren benetako pertzepzioarekin du zerikusia apaltasunak. Ez da apaltasun xaloa, dena Jainkoagandik jasotzen dugula onartzea baizik. Segur aski, beste pertsona askok baino gaitasun handiagoak ditugu, baina horrek ez gaitu eraman behar besteak mespretxatzera. Guk ez ditugu jaso ditugun dohainak merezi izan, eta besteak ez dira dohain horiek ez jasotzearen errudun. Berak nahi duenari eta berak nahi duen bezala ematen ditu Jainkoak, baina atseginez kentzen ditu boteretsuak tronutik, eta apalak goratzen. Ebanjelioak berekin duen **balio-aldaketa** da.

Jainkoaren aurrean jarri behar dugu, ez Legearen aurrean. Erraza da batek bere burua ontzat jotzea Legea betetzeagatik. Jainkoaren aurrean, Kristoren gurutzearen aurrean, horren barkamen beharrean gaude denok. Izan ere, Kristo Jesusengan barkatu digute. Horregatik, Jesusen otoitza izango da kristauaren otoitza. Aitagurean, labor-labor ezarri du Jesusek bere teologia. Guztion aita ona da Jainkoa. Gure giza legeekin manipula ezin dugun Jainko santu bat da. Justiziazko eta maitasunezko bere Erregetza ekarri nahi du, baztertuta daudenentzat batik bat. Haren maitasunezko borondatea gizakion bizitzan bete ahal izatea da garrantzitsua. Jainko maitagarri horren esku utz ditzakegu gure bizitza eta bekatuak. Eukaristiak eman diezagula espiritu apal hori, besteak baino gehiago garela ez sinesteko eta gure munduan barkamen eta adiskidetze tresna izateko prest egoteko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunari egindako otoitzak Berak bihotz onez entzuten dituela jakinik, egigun otoitz apaltasunez:

- Jaunak indarra eta argitasuna eman diezaien Jose Ignazio gure gotzainari eta Elizako artzain guztiei. Eska diezaigun Jaunari.
- Neurrigabeko ezberdintasunak gainditurik, herrietako arduradunak denon ongizatearen alde saia daitezten. Eska diezaigun Jaunari.
- Sufritzen duten guztiek kristau-elkartearen bidez presente egiten den Jaunaren indarra eta laguntza izan dezaten. Eska diezaigun Jaunari.
- Hemen bildu garenok eta gure etxeko eta adiskide guztiok, itxaropenez eta elkarri on eginez bizi gaitezen. Eska diezaigun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk ez diozu begiratzen gizakien ospeari, baizik eta behartsuen alde diharduzu beti; begiraiezaguzu zergalariaren antzera zugana apal agertu nahi dugun Zure zerbitzarioi eta egizu Bera bezala beheraturik Zure erreinuan goratuak izan gaitzela. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratzuz.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, gure fedearen sakramentu honek
egin dezala gugan berak adierazten duena,
orain irudiz egiten duguna
gero egiaz eta bete-betean har dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Urriaren 30ean
URTEAN ZEHARREKO XXXI. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Garrantzitsuena zer den gogoratuko digu gaurko Jainkoaren Hitzak: gure bizitzarekin Jainkoarentzat pozgarri izatea, egiaz maitatzea. Maitasun hori, elkarrekiko maitasunean eta zerbitzuan egikaritzen da, alegia, egia dela agerian geratzen da. Eukaristiak Jainkoaren maitasun misterioan murgiltzen gaitu eta maitasunaren agindu nagusi hori betetzen irakasten digu.

Damu-otoitza

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

- Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
zure graziari esker,
ongi zerbitzatzen zaituzte fededunek;
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara
eragozpenik gabe joan gaitzela.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Biziaren Jainkoa den gure Jaunak, mindua eta zauritua dagoen guztia sendotzen eta gogoberotzen du. Ez du bekatarien gaitza nahi, bere salbamena baizik. Jesus, gure bidera ateratzen zaigu eta salbamenezko adiskidetasuna eskaintzen digu.

Lehenengo irakurgaia (*Jkd 11, 23 – 12, 2*)

Jakinduria liburutik

Jauna, mundu osoa zure aurrean balantzan izpitxo da, lurrean pausatzen den goizeko ihintz-tanta. Guztiez duzu errukia, dena baitezakezu, eta gizakien bekatuei ez ikusiarena egiten diezu, bihotz-berri daitezen. Izaki guztiak maite dituzu, eta ez duzu Zeuk egindako ezer gutxiesten; zerbaiti gorroto izan bazenio, ez baitzenukeen egingo.

Nola iraungo luke zerbaitek, Zuk gogoko ez bazenu? Eta nola jarraituko izaten, Zuk dei eginda sortu ez balitz?

Bihozbera zara Zu izaki guztiekin, zureak baitira, bizidunak maite dituzun Jaun horrenak, eta zure espiritu hilezkorra guztiengan dago. Horregatik, pixkana-pixkana zentzarazten dituzu errudunak, beren bekatuak gogoraraziz zuzentzen dituzu, gaizkitik urrundu daitezen eta Zugar, Jauna, sinets dezaten..

Erantzun-salmoa (*Sal* 145 [144], 1-2. 8-9. 10-11. 13cd-14)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be - re be - ti - ko e-rru - ki - a.

- ✠. Goratuko zaitut, ene Jainko, ene errege,
bedeinkatuko dut zure izena betiere.
Egunero zaitut bedeinkatuko,
beti dut zure izena goretsiko. ✠.
- ✠. Errukiorra eta bihozbera da Jauna,
haserregaitza eta onginahiz betea.
Ona da Jauna guztientzat,
gupidaz betea bere sorkari guztientzat. ✠.
- ✠. Gorets zaitzatela, Jauna, zeure sorkari guztiek,
bedeinkatu zeure fededunek;
aipa bezate zure erregetza ospetsua,
mintza bitez zure ahalmenaz. ✠.
- ✠. Fidagarria da Jauna bere hitz guztietan,
leiala bere egintza guztietan.
Jaunak eusten die erortzear daudenei,
eta altxatzen ditu lur joak. ✠.

Bigarren irakurgaia (2 Ts 1, 11 – 2, 2)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Lehengo ituneko apaizak asko ziren, ezin baitzuten iraun, hil egiten zirelako. Jesusek, ordea, beti irauten duenez, inoiz amaituko ez den apaizgoa du.

Jesusek betiko salba ditzake beraren bidez Jainkoagana hurbiltzen direnak, bizirik baitago haien alde beti erregutzeko.

Benetan, Jesus bezalako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea eta kutsugabea, bekategoriengandik bereizia eta zeruak baino gorago jaso. Honek ez du, beste apaizek bezala, lehenengo bere bekatuengatik eta gero herriarenengatik egunero opariak eskaini beharrik, behin betiko egin baitzuen hori, bere burua opari eskaini zuenean. Legeak, izan ere, gizon ahulak izendatzen ditu apaiz nagusi; legea baino geroagokoa den Jainkoaren zinak, ordea, Semea izendatu du apaiz nagusi, betieran bete-beteko dena.

Aleluia (Ik. Jn 3, 16)

A - le lu - ia, a - le lu - ia.

∇. Hain maite izan zuen Jainkoak mundua,
bere Seme Bakarra eman baitzion;
harengan sinesten duenak betiko bizia du. ☩.

Ebanjelioa (Lk 19, 1-10)

Homiliarako argibideak

Galdua salbatzera bilatzera eta salbatzera etorria

Ebanjelizazio Berriak **beste jokabide bat** eskatzen digu. Kontzilioak gizakiaren bila irteteko eskatu bazuen ere, pertsonak Elizara etorri zain egon da eliza. Egiaren eta benetako balioen jabe sinetsita, Elizak denak erakarriko zituena uste zuen. Asko eta asko dira elizaren bizitzatik urrundu direnak, ordea, eta ezin gara besoak gurutze egon, itzultzen diren edo ez ikusteko. Aita Santuak azpimarratu bezala, gure munduaren mugetara, periferietara irten behar da, baztertuta daudenekin topo egiteko. Egoera «irregularrean» daudelako baztertu ditugu batzuk, eta beste batzuek espero zuten harrera eta ulermena aurkitu ez dutelako alde egin dute.

Jainkoa eta horrek bidalitakoa, Jesus, bakarrik dira gai **garen bezala** onartzeko, bihurtzera deitutako bekatari modura. Zakeo, erromatar okupatzaileen zerbitzura zegoen zergalari bat, bekataritzat jotzen zuten, Jainkoaren maitasunetik at, erlijio judua edukitzeagatik (Lk 19,1-10). Herritarrak esplotatuta aberastua zen, noski, baina bakarrik eta mesprextatua sentitzen zen; hain txikia, jendearengatik ezin baitzuen Jesus ikusi.

Jesus ikusi nahian ari zen, haren berri izan baitzuen. **Nagusi ziren aurreiritzietatik** libre zegoen, eta harekin hitz egin zitekeen, haren bizitza alderatu. Zakeo zur eta lur geratu zen, zuhaitz batera igo eta bere izenez deitu ziotenean. Jesusek ere luze hitz egin nahi zuen berarekin. Laster iritsi ziren jende zentzudunaren kritikak, eta lotsatuta sentituko zen Zakeo, bera baitzen kritika haien eragile.

Lehen aldiz, zen bezala onartzen zuen norbaiten aurrean zegoen. **Pedagogia zinez jainkotiarra** erabiltzen jakin izan zuen Jesusek, Jainkoaren jokaeraren parekoa zena (*Jkd* 11,22-12,2). Jainkoak pixkanaka-pixkanaka zentzarazten ditu errudunak, maitasunez eta ia minik egin gabe. Euren bekatua gogorarazi eta errieta egiten die,

kontzientzia sorgortu ez dakien eta Harengan sinets dezaten. Zakeok hainbatetan eta hainbatetan jasotako kritikak baliatu zituen, bere bizitza bihurtzeko. Bere ondasunen erdiak pobreei emateko eta egindako bidegabekeriak legeak eskatu baino asko ere eskuzabalago zuzentzeko keinuak erakusten du bere bizitza berria.

Jesus liluratuta geratu zen salbamena jaso zuen etxe hartan sartze hutsarekin lortutako gauza harrigarriekin. Jainkoaren Herriko kide zen Zakeo, bizitzako gorabeherak eramana zuten bidegabekeriaren bidetik. Hala eta guztiz ere, Abrahamen seme izaten jarraituko du. Bekatua egin duen arren, **Jainkoaren errukiaren** xede da bekataria zintzoa baino arrazoi gehiagorekin. Bekataria galbidean dago, eta Gizonaren Semea arriskuan daudenak salbatzera etorri da, hain zuzen ere. Eskandalizatu ordez, poztu egin beharko genuke, norbaitek azkenean bere bizia salbatuz gero.

Jainkoari beren ekintza onengatik salbamena merezi dutenak bakarrik interesatzen zaizkiola pentsatzea da euren burua zintzotzat duten eta bekatariak zein beraiengana hurbiltzen direnak kritikatzan dituzten pertsonen drama. Ahaztu egin zaie salbamena **dohain** bat dela, jasotako grazia merezi duen bizitza batean hartu beharrekoa. Eukaristiak, Jesusen pazko-bazkariko gonbidatu izateak, gure bizitza aldatzera eta benetan bihurtzera eramane gaitzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta eman diezagula behar dugun laguntza:

—Jainkoak isur dezala Elizarengan apaltasun eta sendotasun espiritua eta sorrarazi ditzala Ebanjelioaren zerbitzari leial izango diren era guztietako bokaziodunak. Eska diezaiogun Jaunari.

- Jainkoak ernaraz dezala agintariengan on egiteko borondatea eta hauek erraz dezatela guztiontzat ongizatezko eta justiziazko bizimodua. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak lagun diezagula guztioi gure zailtasun eta ezinetan, eta eman diezaiela hilzorian daudenei bakea eta atsedena. Egigun otoitz. R/.
- Jainkoak sendo gaitzala fedean eta eman diezagula guztioi beti on egiteko laguntza. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure Semearen bidez galdua zegoena bilatu eta salbatzera etorri zaren gure Jainkoa, entzun Zure Elizaren otoitzak eta egin gaitzazu jaso dugun deiaren neurriko; lagun iezaguzu gure asmo onak betetzen eta egizu senideengan pozik aurki zaitzagula beraiekin ondasunak banatuz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Gero eta gehiago agertu bedi gudan, Jauna, zure indarra;
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,
beroiek agintzen dizkiguten ondasunak lortzeko
zure graziak gai egin gaitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 1ean **SANTU GUZTIEN FESTABURUA**

Agurra

Santutasunera dei egiten digun Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Santu guztien festaburu honek poza eta itxaropena sortzen ditu gugan. Poza: gure senide ugari bizitza honetan Kristorekin bat egin ondoren orain zeruko zorionean bizi direlako. Itxaropena: haien ereduarekin eta laguntzarekin guk ere Kristoren bide hori bera egin dezakegulako eta santuen zorionera iritsi. Santuekin bizi dugun batasun-misterio hori Eukaristian era berezian agertzen dela jakinik ospatzen dugu esker onezko batzar hau.

Damu-otoitza

Senideok: itxaropenez beterik jo dezagun Kristorengana eta eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, Zu zara Jainkoaren Santua. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk santu izatera deitzen gaituzu. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara santu guztien saria. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santu Guztien merezimenduak
egun berean ospatzea ematen diguzu;
horrenbeste laguntzaile dugunez gero,
emaguzu oparo, eskatzen dizugun errukia eta barkamena.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Zoriontsu nahi gaitu Jesusek, garaileen taldeko, Jainkoaren maitasuna ezagutu eta bizi dutenenen batzarkide. Horretarako gurutzea da bidea, eskaintza da modua, zerbitzua da baldintza.

Lehenengo irakurgaia (*Ap 7, 2-4. 9-14*)

Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamena».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Erantzun-salmoa (Sal 24 [23], 1-2. 3-4b. 5-6)

Kan - ta Jau - na - ri jai ho - ne - tan, san - tu guz - ti -
 en o - ho - re - tan.

- ∞. Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena,
 mundua eta bertan bizi direnak,
 hark ezarri baitu itsasoen gainean,
 hark finkatu lur azpiko ibaien gainean. ℞.
- ∞. Jaunaren mendira nor igoko?
 Haren toki santuan nor egongo?
 Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituena,
 sasijainkoetara jotzen ez duena. ℞.
- ∞. Horrelakoa bedeinkatuko du Jaunak,
 justizia egingo dio Jainko salbatzaileak.
 Hau da haren bila saiatzen den gizaldia,
 Jakoben Jainkoaren aurpegi bila dabilena. ℞.

dituzte. Kristau aitortzeagatik, arriskuan jartzen dituzte euren bizia eta Elizaren jatorriak. Eliza bekataria da, noski, baina baita santu ere. Martirien, karitatearen eta maitasunaren Eliza, pobreen Eliza, letraren eta espirituaren eskaera guztiakin saiatzen da, egun, ebanjelioa bizitzen. Lehen mendeetan, basamortura erretiratzen ziren martiri eta monjeekin lotuta zegoen santutasuna. Gaur egun, berriz, **solidaritatearekin, partekatzearekin, justiziaren bilaketarekin** dago lotuta.

Santuak pertsona apartak zirela pentsatu dugu beti, heroia modukoak, miresgarriak imitagarriak baino gehiago. Orain konturatu gara santuak ez direla heroiak izan, **Jainkoaren eta Jesu Kristoren lekukoak** baino ez. Horixe izaten saiatzen gara gu ere. Horregatik, Eliza primitiboan araua zen santutasuna, eta ez salbuespena. Jaun berpiztuari jarraitzen dion jendetza gisa ageri dira santuak (*Apk 7, 2-4. 9-14*). Santuak martiriak izan ziren guztiaren gainera, euren lekukotza odolez zigilatzeke gai izan baitziren. Asko eta asko dira, ordea, euren lekukotza santuen bizimoduarekin zigilatu duten fededunak.

Jainkoarena eta Jainkoarengan eta Jainkoarentzat bizi direnena da santutasuna. Jesus bera da lekuko handiena. Jesusen bizimodua laburbiltzen da **Zoriontasunetan** (*Mt 5, 1-12*). Jesusek irudikatu ditu munduan Jainkoaren santutasuna dirdirarazten duten balio ebanjeliko berriak. Santutasun hori ez da mundu honetako pobreenganako eta galtzaileenganako baldintzarik gabeko maitasuna baino. Jesus zoriontsu bizi izan zen pobrezian, eragin gabezian, Jainkoarenganako eta besteenganako konfiantza xaloan. Haren begirada gardenak Jainkoaren presentzia ikusarazten zion denak galduta zirudien lekuan. Baztertu egin bazuten ere, ez zuen zoriontasuna galdu. Konbentziturata egon zen maitasunaren Jainkoak bere Erregetza ekarri nahi zuela mundu honetara eta munduko

botereek ezingo dutela eragotzi Jainkoa errege izan dadin. Jainkoaren maitasuna, Jesus alboratzen duten gure bazterkeria eta gorroto guztiak baino indartsuagoa da.

Fedeko pertsonak izan dira santuak batez ere, Jainkoari zabaldu eta euren bizitzan **Jainkoaren maitasuna** hartu dutenak, maitasunaren zirkuitu horretan sartu, eta Jainkoaren maitasuna euren bitartez pertsona guztiengana hel dadin utzi dutenak, onengana eta gaiztoengana, lagunengana zein etsaiengana (*1 Jn 3, 1-3*). Horregatik, santuetan beteta ikusten dugu Jainkoak kreazioaren unean eduki zuen giza ideala.

Denok gaude santutasunera deituta. Jainkoa ez zaio pribilegiatu taldetxo bati bakarrik ematen. Denokin komunikatzen da eta santu egiten gaitu, eta santutasuna bizitzera gonbidatzen gaitu, bere seme-alaba gisa bizitzera. Santutasunerako dei hori zen lehen kristauen bizitzaren motorra. San Paulok maiz ekartzen du gogora: **santuak zarete, bizi santuak bezala**. Santuak gara bataio-egunetik, horrek egiten gaitu Jainkoaren seme-alaba. Itxaropen hori duena egunero purifikatzen da. Bekatuarekin hausten saiatzen da, egunegun Jainkoaren maitasunena gero eta gehiago sinesten duen lekuko bat izateko. Jainko santuak ez du santutasuna beretzat gordetzen. Guztiok jakinarazten digu. Horregatik ospa dezakegu salbazioa eukaristian, eta zeruko santuen Elizari lotuta sentitu. Haien animatzen gaituzte gure mundua hobetzeko lan egitera, itxaropena eta kristau maitasuna jarrita

Jainkoaren herriaren otoitza

Beren bizialdian lurraren gatz eta argi izan ziren santu guztiak laguntzarekin zuzen diezazkiogun gure otoitzak Jaunari:

- Jaunak sor ditzala gaur ere eredugarri izango zaizkigun gizon-emakume santuak, Jaunarekin batuago eta senideekin eskuzabalago bizitzen ikas dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Ebanjelioaren berri ona ezagutzen ez dutenek, jaso dezaten santuen testigantzaz bere bizitza gozatuko duen argia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bere bizitzan nekeak pairatu zituzten santuen ereduak, lagun diezaiela sufritzen duten guztiei kementsu irauten eta bizimodu hobearen alde lehiatzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur santu guztiak ospatzera bildu garenok, bil gaitzela egun batean gure senide hildako guztiekin Kristoren aintzazko erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Aita ona, Zure erreinuan aintzaz janzten dituzu Senarraren zain erne bizi direnak; entzun gure otoitzak eta egizu kriseiluak pizturik zaindu ditzagula Zure Semearen otordura sartzeko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Oi Jainko,
Santu Guztien jaiegun honetan,
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen dizugu,
zeure maitasun beteaz santutasun osora eraman gaitzazun
eta, lurrean erromes goazenon mahai santu honetatik,
zeruan prestatua duzun mahai santura igaro gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 2an
HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA

Agurra

Heriotza garaiturik hilen artetik piztu zen Kristo izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Hildako senideak gogoan ditu gaur Eliza osoak. Bada, San Agustinen otoitz bat gaur gogoan duguna: «Jauna ez dizut aurpegiratzen senide hau kendu izana; baizik eta eskerrak ematen dizkizut eman zenidalako». Gu ere esker onez, gu ere erromes garela gogoratuz eta hildakoen aldeko otoitzak on egiten digula jabetuz Eukaristia ospatzera gatoz.

Damu-otoitza

Senideok, apaltasunez beterik jo dezagun errukiaren iturrira eta eska dezagun gure bekatu guztien barkamena:

—Aitortzen diot...

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

—Erruki, Jauna... Kristo, erruki... Erruki, Jauna...

Otoitza

**Entzun, Jauna, bihotz onez, gure eskariak
eta sendotu hilen artetik piztua den
zure Semeagan dugun fedea,
hildako gure senideak piztuko diren itxaropena ere
gugan sendoagoa izan dadin.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaren Jainkoa,
Zuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta piztueraz;
erruki zaitetz hildako gure senideez
eta egizu, piztueraren misterioa sinetsi dutenez gero,
goza dezatela betiko zorionaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Oi Jainko, zeure Seme bakarra, heriotza garaiturik,
zeruko aintzara sarrarazi zenuen;
egizu, hildako gure senideek ere,
bizitza honetako izate hilkorra garaiturik,
betieran ikus zaitzatela Zu,
beren egile eta salbatzaile hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Irakurgaiak *Hainbat irakurgai proposatzen dira egun honetarako
Irakurgaiak liburuan. Hileta-mezarako ematen
diren etikak ere har daitezke. Hemen, erantzun salmoa
eta aleluia proposatzen ditugu:*

Erantzun-salmoa (*Sal* 27 [26], 1 eta 4abcd)§ *Denek**Bukaera*

R/. Jau-na-gan hi-lak bai do-ha - tsu, ha-ren au-rre - an zo-ri-on - tsu!

Batek

V/. Jau - na dut ar - gi, Jau - na o - sa - sun: nork ni i - zu - tu?
Gau - za ba - kar bat Jau - na - ri di - ot nahi es - ka - tu:



Jau - na dut la - gun, nork be - har nau ni i - ka - ra - tu.
Bi - zi nai - ze - no be - re e - txe - an na - za - la har - tu.

Aleluia (*Mt* 25, 34)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



∞. Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok;
hartzazue munduaren sortzetik
zuentzat prestaturik dagoen erreinua. ∞.

Homiliarako argibideak*Oroimena duten erromesak*

On egiten digu hildakoen egun honek. Erromes gabela oroitazten digu, eta bidean goazela zeruan bizitzera deituak garelarik; ahaztu ez dezagun hemen ez gaudela betirako, baizik eta bizitza hobea eta

amaiezina dugula helburu.

Heriotza zerbait serioa da, zalantzarik gabe. Gertu tokatzen zaigunean minez betetzen gaitu, eta zalantzaz, kezkaz eta beldurrez ere bai. Galderak sortzen dizkigu, heriotza misterio bat delako. Kristok berak ere negar egin zuen Lazaro adiskidearen heriotzan eta beldurra eta ezina nozitu zituen Bere heriotza gertu ikusi zuenean.

Guk ordea fedearen begiekin begiratzen diogu heriotzari. Heriotza bera da, baina begiratua ezberdina. Kristoren pazkoak argitzen duelako, ez misterio hori edo zailtasun hori deseginez, bain bai zentzuz bizitzen lagunduz; eta horrela, etorkizunari itxaropenez begiratzen laguntzen digu. Gure etorkizuna Berri Onez betetzen duelako, itxuraz dena ilun eta gordin gertatzen bada ere. Ez dakigu egiaz nola, baina sinesten dugu heriotzak ez duela azken hitza. Jainkoak bizitzarako sortu gaitu. Era berean Kristoren gurutzea ere ez zen azkena izan, aintzazko bizi beterako bidea baizik.

Mezetako testuek laguntzen digute gure heriotza Kristoren heriotzaren ikuspegitik begiratzen: «Bera da hilen arteko lehen Semea», Bera da «piztuera eta bizia», Berari begira aitortzen dugu Kristo piztu zen bezala gu guztiok ere piztuko garela azken egunean.

Meza oro gogoan ditugu hildakoak, ez gaur bakarrik. Eukaristi Otoitzean bat egiten dugu «sinestearen ezaugarriarekin joan eta orain bakezko lotan diren» hildako senideekin. Kristau ez zirenak ere gogoratuz, hildako guztiak gogoratzen baititugu, Jainkoak «bakarrik dakiela fededun hil diren guztiak» aipatzean. Guztientzat eskatzen diogu Jaunari atsedena eta bizi betea eta erregutzen diogu har ditzala Bere Erreinuan, Jainkoaren aurpegiaren argia goza dezaten.

Eukaristia da hildakoen aldeko otoitzik ederrena. Horregatik esaten diogu Jaunari: «ireki iezaiezu, Jauna, hidako gure senideei argi eta bake den zure etxea»; edota «zure Semearen sakramentua harturik, gure senide hilen alde eskatzen dizugu: Kristoren pazko-misterioan garbituta, zorion betea iritsi dezatela piztuera-egunean...».

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz konfiantzaz beterik errukiaren Aitari eta eska diezaiogun Jaunagan hil diren gure senideen betiko atsedena:

- Kristok, bere heriotzaz heriotza suntsitu eta bere piztueraz mundu guztiari bizia eman zionak, eman diezaiela argia eta betiko zoriona gure anai-arreba hildakoei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, errukiaren maisuak barka diezazkiela hildakoei, gogapen, hitz eta egitez eta egin beharrak ez eginez egin zituzten bekatu guztiak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, Eukaristiako ogiaz eta Liburu Santuko hitzaz janaritzen gaituenak, sendo dezan Eliza santua, tristeziaren eta ezin-ulertuaren kateekin loturik daudenentzat poz eta argi izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, bere mahaiaren inguruan bildu gaituenak, bil gaitzala gero ere, hildako zintzo guztiekin batean bere erreinuko mahai santuan, gizaldi eta gizaldietan Jainkoa ikusi eta gores dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun gure otoitzak, Jainko Jauna, zabaldu Zure Erreinuko atea gure senide hildakoei, Kristo Jaunaren piztuera aintzatsuan parte izan dezaten betiko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Egizu, Jauna, hildako gure senideak
sar daitezela argi eta bake den bizilekura,
haien alde ospatu baitugu pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Gugatik hil eta aintzaz piztu zen
zure Semearen sakramentua harturik,
apalki eskatzen dizugu, Jauna, hildako gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
irits dezatela piztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Eskaini dizugun sakrifizio honen bidez,
isur ezazu, Jauna, zeure erruki ugaria
hildako gure senideen gainera;
eta Bataioaren grazia eman zenienei
emaiezu betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 6an
URTEAN ZEHARREKO XXXII. IGANDEA

Elizbarrutiaren eguna

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Aitortzen dugun fedea, ahultasun eta guzti, leialtasunez bizitzen laguntzen digu Eukaristiak. Jainkoaren eskuetan jarririk, bihotz eskuzabala izatearen dohaina berari eskatuz. Jainkoak ez dio itxurari begiratzen, bihotzari baizik.

Gaur, Elizbarrutiaren eguna dugu. Elkarrekin, besteei eskainitako eliza bizia lortzen dugu. Egun berezia, gure ahalegin eta jardun guztientzat argitasuna eskatu eta Elizbarrutiaren beharretarako diru-bilketa egiteko.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
urrundu gugandik eragozpen guztiak,
gorputzez eta arimaz geure buruaren jabe izanik
askatasun osoz zure nahia bete dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Historian zehar gizon eta emakume asko eta askok fedean aurkitu dute beren bizitzarako orientabidea eta oinarria. Egiazko bizitzan itxarotea, eta zentzuzko bizia bizitzea, piztueraren esperientzia sakona egitea da. Itxaropentsuak eta bizi-biziak nahi gaituen Jainkoak aurkezten dizkigu horretarako bideak.

Lehenengo irakurgaia (2 Mak 7, 1-2. 9-14)

Makabearrek bigarren liburutik

Egun haietan, zazpi anaia atxilotu zituzten beren amarekin. Legeak debekatua zuen txerriak jatera behartu nahirik, idi-zainez egindako zartailuz zigorkatu zituen Antioko erregeak.

Anaia zaharrenak, denen izenean mintzatuz, esan zuen: «Zer galdetzen diguzu? Zer jakin nahi duzu gugandik? Prest gaude hiltzeko, gure arbasoen legeak hautsi baino lehen».

Bigarren anaiak ere, azken arnasa ematean, esan zuen: «Zuk, gaizkile maltzur horrek, oraingo bizia kentzen diguzu; baina munduko Erregeak betiko bizirako piztuko gaitu beraren legeengatik hiltzen garenok».

Gero, irain eta iseka egiten hasi ziren hirugarrenari; mingaina ateratzeko eskatu ziotenean, berehala atera zuen eta eskuak ere luzatu zituen kementsu. Eta esan zuen gizonki: «Jainkoak eman zizkidan gorputz-atal hauek beraren legeengatik gutxiesten ditut; eta ziur nago beragandik hartuko ditudala berriro». Harriturik gelditu ziren erregea eta beronekin zirenak gaztearen ausardiaz, huskeriatzat baitzituen oinaze-minak.

Hura hil zenean, oinaze berberaz torturatu zuten laugarrena. Hiltzear zegoela, esan zuen: «Merezi du giza eskuz hiltzea, Jainkoak berpizteko itxaropena ematen digunean. Zuk, ordea, ez duzu bizirako berpizterik izango».

Erantzun-salmoa (Sal 17 [16], 1. 5-6. 8 eta 15)

Jau - na dut ar - gi e - ta sal - ba - men.

- ∞. Entzun, Jauna, nire **justizi** eskea,
aditu nire **dei**adarra;
makurtu belarria nire **otoit**zera,
ez dut engainurik **ezp**ainetan. ∞.
- ∞. Sendo ditut oinak ezarrita**ko** bideetan,
ez dira aldendu nire urratsak zure **ar**rastotik.
Deika nauzu, Jainko, erantzuten **bait**idazu;
itzuli nigana belarria, entzun nire **re** mintzoa. ∞.



∞. Zaindu nazazu begi-ninia bezala,
gorde ni zeure hegalen itzalpean.
Nik, berriz, zuzena naizelarik, '
zure aurpegia dut ikusiko,
esnatzean zure presentziaz **naiz** aseko. ∞.

Bigarren irakurgaia (2 Ts 2, 16 – 3, 5)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunak berak eta Jainko gure Aitak –maite izan gaituen eta betiereko kontsolamendua eta halako itxaropen zorionsua dohainik eman digun Aitak– bete zaitzatela kemenez eta sendotu, on den guztia egitez eta hitzez burutzeko.

Gainerakoan, senideok, egizue otoitz gure alde, Jaunaren mezua bizkor zabal dadin eta denek ospez onar dezaten, zuek onartu zenuten bezala. Egin otoitz ere gu onik atera gaitezen jende oker eta gaiztoengandik, ez baitira denak leialak. Jauna, ordea, leiala da; berak sendotuko zaituzte eta gaiztoagandik gordeko. Zuei dagokizuenez, guk agindutako guztia egiten duzuen konfiantza ematen digu Jaunak, baita egiten jarraituko duzuen ere. Jaunak zuzen dezala zuen bihotza Jainkoa maitatzera eta Kristoren itxaropenean irautera.

Aleluia (Ap 1, 5a. 6b)





∞. Jesu Kristo da hilen arteko lehenengo **piztua**;
berari aintza eta **agintea**
gizaldi eta gizal**dietan**. ∞.

Ebanjelioa (*Lk 20, 27-38*)

Homiliarako argibideak

Bizien Jainkoa da, ez hilena

Ba al dago ezer hil ondoren? Ezinbesteko galdera da, baina erantzunak askotarikoak dira. Erlijioak saiatu dira, noski, gure esperientziatik harago doan galdera hori erantzuten. Beste bizitzaren gaineko sinesmena sinesmen hutsa ez izatea nahi dugu guztiok, **oinarri experimental** bat-edo edukitzea. Ziur gaude beste bizitza bat badago eragina izan behar duela bizitza honetan, ez duela orain bizi dugunetik guztiz aparte egon behar. Betiko bizitzan sinesten badugu, bizitzan ere sinetsi behar dugu, besterik gabe.

Israelgo herrian, oso berandu agertu zen piztueraren ideia, erresuma helenistikoaren pertsekuzioen garaiko **martirioaren** esperientziarekin lotuta (2 Mak 7, 1-2. 9-14). Jainkoak ezin zuen utzi, besterik gabe, bere jarraitzaileak hain gazte hil zitezen, bizi izan gabe. Beste bizi bat eman behar zien Jainkoak. Judu jainkozaleek, farisearrek, onartu egin zuten sinesmen hori. Bitxia bada ere, saduzearrek, apaiz tradizionalak, alegia, ez zuten onartu, ordea, berrikuntzat jotzen baitzuten.

Piztuerarik gabe, Jesusen eta horren jarraitzaileen bizitzak ez zuen inolako zentzurik, Jainkoarekin elkartzeko itxaropenarekin arriskatu baitzuten bizia. Saduzearrek ukatu egiten dute piztuera, **sinesmen**

absurdua iruditzen zaie, emakumearen eta zazpi senarren kasuan ikusten den bezala. Noren emazte izango da zeruan? Objektio hori desegin ez ezik, piztueran sinesteak Moisesen Legea duela oinarri ere erakutsiko du Jesusek, judu guztientzat arau denak (*Lk 20, 27-38*).

Jesusen arabera, gure giza kategoriak beste munduan proiektatzetik dator piztueran ez sinestea. Uste dugu mundu honetako instituzioak daudela zeruan. Erreinuan ez da ezkontzarik egongo. **Erabat aldatuko** gara, Jainkoaren bizia bizi ahal izateko. Jainkoaren botereari eskera da hori posible.

Baina garrantzitsuena da Jesusek Moisesen Legearen liburuetan aurkitu izana piztueraren froga, apaizek kanoniko gisa onartutako liburu bakarretan. Jainkoa «Abrahamen, Isaaken eta Jakoberen Jainko» gisa agertzen da. Jainkoa den heinean, **Biziaren Jainkoa** da, ezin da hilen Jainkoa izan. Jainkoarentzat, bizirik daude denak. Benetako esperientzia erabili du Jesusek. Jainkoarekiko gure harremanak benetako biziarekin harremanetan jartzen gaitu. Halaxe bizi izan dute fededun handiek. Gure senide maiteak ez dira ezerezean galtzen, Jainkoarentzat bizi dira. Pertsona bat maitatzea hauxe esan ala izatea da, Gabriel Marcelen esanetan: niretzat, zu ez zara sekula hilko. Horixe esaten digu Jainko Aitak gutako bakoitzari.

Guretzat ere gure senide maiteek ez lukete gure bizitzatik desagertu behar eta, askotan, presente ere sentitzen ditugu; beste batzuetan, ordea, zailtasunak ditugu hildakoen presentzia espiritualak sentitzeko. Haiek ez daude denboraren eta espazioaren mugen mende, baina. Jaun Berpiztuak presente egiteko duen gaitasuna dute, zentzu batean. Piztueraren indarra lanean ari da, jada, gure bizi hilkorretan, Jainkoaren bizitzan sartzeko prestatzen.

Biziaren Jainkoa da Jainkoa. Gizaki biziduna da Jainkoaren aintza. Agian, Nietzschek salatzen zuen bezala, kristauok ez dugu **berpiztu**

itxura handirik; hori da gaur egungo kristautasunaren arazoa. Ez ditugu serio hartu Jesusen piztuerak munduan abian jarritako indarrak. Historia pertsonala eta soziala ez ezik, unibertsoa bera ere eraldatu dute. Zeru berriak eta lur berria sortu dituzte, justizia nagusi izango dutena. Gure eginbeharra da Jaunari historia eta mundua aldatzen laguntzea. Eukaristiak gure bizitzak berritu ditzala, bizitzari eta heriotzari zentzurik aurkitzen ez dietenei itxaropena emateko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin dezagun otoitz gizaki guztien alde, inoiz falta ez dezaten gure eskuzabaltasuna:

- Eliza barne-bakez bizi dadin beti, honela Ebanjelioaren testigu gartsu izan dadin eta Jauna erdian izateaz poztu dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunei eman diezaiela Jaunak jakinduria eta zuhurtasuna, guztien ongizatearen alde jarduteko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan gehien sufritzen dutenak beren ezinetatik arinduak aurki daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Guk guztiok, kristau eran jardun dezagun gure eginkizun guztietan, gure lanek fruitu onak eman ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, biziaren jabea, piztueraren egilea, Zure aurrean hilak ere bizirik agertzen dira, entzun gure otoitzak eta egizu gure bihotzean ereindako Zure Semearen hitzak fruitu ugari eman dezala eta denok sendotuak izan gaitezela piztueraren eta betiko bizitzaren itxaropenean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Orain egitera goazen diru-bilketa Elizbarrutiaren beharretarako izango da.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure dohainez janariturik, eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,
sakramentu honetan eman diguzun
Espiritu Santuaren indarrak
iraun dezala gugan
eta eman diezagula leialtasunean bizitzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 13an

URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA

Pobreen Mundu Jardunaldia

Agurra

Gure sinesmena ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batzar honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristau urtearen, liturgi urtearen amaierara gerturutzen ari gara: gaurko ospakizunak erne bizitzeko deia egiten digu, historiaren amaieran Jaunarekin topo egiteko prestatuz.

Gaur, gainera, Eliza osoak Pobreen Mundu Jardunaldia ospatzen du, goiburu honekin: «Jesu Kristo zuengatik egin zen behartsu» (ik. 2Ko 8, 9). Behartsuengana behar adina gerturutzen garen eta are gehiago, Kristoren behartsu izatea geure jarrera bihurtzen dugun hausnartzeko egun egokia dugu gaurkoa.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **ogi** egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **ema**ten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
 egin gaitzala zure laguntzak beti alai zure zerbitzuan,
 ondasun ororen iturri zaren horri emanak
 bizitzea baita guretzat
 egiazko zorion betea eta iraunkorra.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gehiegi begiratzen diogu lehenari. Eta orainari lotuegi bizi gara, momentuan momentukoa biziz. Etorkizunak ere behar du gure begirada lasaia, begiratu sakona. Jainkoak beteko du, Jainkoarekin izango gara. Gaur dugu horretan hasteko garaia.

Lehenengo irakurgaia (Mt 4, 1-2a)

Malakiasen Profezia liburutik

Begira: «Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. Harro eta gaizkile guztiak lasto izango dira, eta zeharo kiskaliko ditu etortzekoa den egunak; ez die utziko, ez sustrairik, ez abarrik. Baina zuentzat, nire izenari begirune diozuenentzat, eguzkia bezala agertuko da nire justizia, errainuetan osasuna dakarrela».

Erantzun-salmoa (Sal 98 [97], 5-6. 7-8. 9)

Ba - da - tor Jau - na gi - zar - te - ra, he - rri - ak zu -
 zen e - pai - tze - ra.

Aleluia (*Lk 21, 28*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

✠. Izan bihotz eta jaso **burua**,
hurbiltzen ari baita zuen aska**pena**. ✠.

Ebanjelioa (*Lk 21, 5-19*)**Homiliarako argibideak***Leialtasunaren eragin bikaina*

Eliza ere sar daitezke gauzek berdin jarraitzen dutela ikusita gure munduan dabilzan haize ezkorrak. Elizan ere gauzak ez doaz guk nahi bezala. Apaizak ez ezik, fededunak ere gutxitzen eta zahartzen ari dira, Europan batik bat. Zoritxarrez, kristauak gutxiengo diren herrialde askotan pertsegituta daude. **Pazientzia eta ausardia** handia behar dira leku horietan kristau izaten jarraitzeko, leku horiek ez uzteko.

Garai zailetan eta pertsekuzio garaietan batez ere, Jainkoaren epaiketaren azken eguna hel dadin nahi izan dute fededunek, justizia ezarriko den eguna (*Mal 3, 19-20*). Profetek sustatu dute itxaropen hori, bai eta egun hori hurbil deneko ziurtasuna ere. Amaiera hori iragartzen zuten gertaeretan zentratu zen interesa. Jerusalemen 70. urteko suntsiketa azken etaparen hasiera modura ikusi zuten askok. Lukas, aldiz, sinesmen horren kontra egongo da, «amaiera ez baita berehala etorriko». Jerusalemen suntsiketa Mesia onartu nahi zian ez

duen hiri bekatariaren zigorra izan zen, argi eta garbi. Salbazioaren historiaren etapa baten amaiera eta Kristo Jesus ardatz zuen **fase berri baten** hasiera zen (*Lk*, 21, 5-19).

Jerusalemen desegitearen eta munduaren amaieraren artean **tarteko garai bat** dago. Elizaren garaia da, lekukotzaren garaia. Historiak aurrera jarraitzen badu, Jainkoa ebanjelioa iragartzeko eta gizakiek salbazioa lor dezaten aukera ematen ari delako da. Tamalez, lekukotza garaia **pertsekuzio garaia** da batzuetan. Jainkoari esker, kristau fedea arbuatua bada ere pertsegitua ez den herrialde batean bizi gara.

Ebanjelioa gatazka iturri da, noski. Jesusek bizi izandako bazterketa harren jarraitzaileek bizi dute gaur egun. Egoerak desesperatua dirudi, agian, zatiketa eragiten baitu familian eta Elizan bertan; fededunak garaile irtengo dira, ordea. Ez dute euren defentsa prestatu beharko akusatzaileen aurrean, Jainkoaren Espirituak defendituko baititu. Pertseberantzia bakarrik eskatzen zaio fededunari, leialtasuna, bere bizia esku honetan dagoela jakinda.

Bere amaierarantz doa historia. Urrun dago amaiera, baina Lukasek begi aurrean jartzen die bere irakurleei. Amaierak katastrofikoa badirudi ere, Lukasek ez ditu beldurtu nahi. Aitzitik, orduan altxatu behar da burua, **salbamena hurbil baitago**. Kristoren etorreraren zain egoteak ez gaitu gaur egun dugun konpromisotik distraitu behar (*2 Ts* 3, 7-12).

Konpromiso horren lehen gauza eguneroko lana da, Jauna justizia ezartzera etorri zain besoak gurutze ez egotea. Guk geuk egin behar dugu lan mundu bidezkoago bat, anaitasunezko mundu bat, sortzeko. Gure kristau lekukotzarekin Kristo iragartzen ari gara, horren Erregetzaren etorrera prestatzen. Baina ezin gara orainaldi honetan ito ere, Jaunaren zain gaudela ahaztuta. Giza ekintza bakar bat ere ezin da behin betikotzat jo, ezta bikaina bada ere. Kristauak

distantzia kritikoa mantendu behar du beti historikoa den guztiarekin, behin betikoa dena Kristorengan bakarrik emango zaigula jakinda.

Eukaristian, Jaunaren heriotza iragartzen dugu, etortzen den artekoa. Haren etorreraren itxaropenak erne manten gaitzala kristau bizitzako erronken aurrean, eta eman diezagula indarra Berpiztuaren lekuko leial izateko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta onar ditzala onginahiz gure eskariak:

- Jaunak, on guztiaren sortzailea denak, dei egin diezaiela gaur ere erlijioso/erlijiosa bizitzan jarraituko dioten gizon-emakumeei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, indar guztien iturria denak, argi ditzala herrietako agintariak, bere eginkizunetan eta erabakietan asma dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, bizitzaren emalea denak, begira diezaiela errukiz gose direnei eta eman diezagula guztioi horiekiko arreta izateko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, maitatzeko agindu zigunak, eman diezagula etsaiak maitatzeko indarra eta inori gaitzik ez egiteko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.

Gauza guztien hasiera eta amaiera zaren Jainkoa, gizadi osoa Zure Semearen Gorputz den tenplu bizian bildu nahi izan duzu; entzun otoizka ari zaizun Elizari eta egizu ikas dezagula onean eta txarrean itxaropen izaten, sufrimendua iraupenez eramanda betiko bizitza iritsiko dugula jakinik. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Sakramentuaren dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu zigun Eukaristia honek
handi dezala gudan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Azaroaren 20an

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA

Agurra

Kristo, diren guztien Erregea, gerta dakizuela bake eta salbamen eta Haren maitasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Liturgi-urteari amaiera emanaz Kristo Erregearen jaia ospatzen dugu gaur. Bera da gure historiaren erdi-muina; Berarengana goaz, Bera dugu helmuga.

Gaur Bere mahaian biltzen gaitu, Bere artzain-jarrera, Bere zerbitzu gogoa, Bere maitasun gozoa geure egin ditzagun. Eta gurutzeko eskaintzan agertzen digu handikero bere Errege izatea. Gurutzea du tronu, arantzazkoa bere koroa. Berari aintza eta gorespen!

Damu-otoitza

Gurutzea du Kristok Bere errege-aulkia. Berari begiratuz, eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

- Jesus Jauna, gizaki guztien Sal**bat**zaile zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gu guztiontzat gizatasun **ere**du zarena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, guztion bihotzak Zuregana era**kart**zen dituzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
diren guztien Errege den zeure Seme maitea ezarri zenuen
gauza guztien oinarri eta buru;
egizu onbera, izaki guztiek, bekatuaren uztaipetik askaturik,
Zu zerbitza zaitzatela beti eta goretsi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Samuelen liburuan Daviden gantzutzea kontatuko zaigu eta Ebanjelioan, Jesus ikusiko dugu errege, baina gurutzean iltzatua eta heriotzaren atarian. Gurutzean estuasun bera pasatzen ari den gaizkile batek bakarrik aitortzen du Jaun eta Jainko. Kolosarren gutuneko gorazarreak lagunduko digu guri Jesus bihotzez goratzen.

Lehenengo irakurgai (2 Sm 5, 1-3)

Samuelen bigarren liburutik

Egun haietan, Israelgo leinu guztiek Hebronera Davidengana etorri eta esan zioten: «Zeure odolekoak gaituzu. Lehenago ere, Saul gure errege zenean, zuk gidatzen zenituen Israelen joan-etorriak. Gainera zuri esana dizu Jaunak: “Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel eta zeu izango zara israeldarren agintaria”».

Etorri ziren, beraz, israeldarren buruzagi guztiak David erregeagana Hebronera, eta honek hitzarmena egin zuen haiekin Hebronon Jaunaren aurrean. Eta haiek Israelgo errege gantzutu zuten.

Erantzun-salmoa (*Sal* 122 [121], 1-2. 4-5)

Zu-re e - txe-ra go - az, Jau - na, hau - xe da
po - za dau - ka - gu - na.

∞. Hura poza nirea, esan zidatenean:

«Goazen Jaunaren etxera!»

Hona orain nire oinak

zure ateetan, Jerusalem. ☩.

∞. Hara igotzen dira leinuak, Jaunaren leinuak,
Israelen lege denez, Jaunaren izena gorestera.

Han daude ezarriak auzi-mahaiak,

Daviden jauregiko mahaiak. ☩.

Bigarren irakurgaia (*Kol* 1, 12-20)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Eskerrak ematen dizkiogu Aitari, argiaren erreinuan bere santuentzat prestaturik dituen ondasunetan parte izateko gai egin gaituenari. Ilunpearen menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; honengan dugu askapena, honengan bekatuena barkamena.

Jainko ikusezinaren irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sortua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zero-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du

eredu eta helburu. Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute.

Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa;

Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzeara, Kristok gurutzeara isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiakin.

Aleluia (Mk 11, 10)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

∞. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrrena!
 Bedeinkatua datorren erreinua,
 gure aita Daviden erreinua! ∞.

Ebanjelioa (Lk 23, 35b-43)

Homiliarako argibideak

Juduen erregea

Zoritxarrez, bere zigorrek inoiz ere mehatxatutako moralitate publikoaren zaindari gisa agertu da Eliza askoren begietara mende askotan. Jainkoa kondenatzaile eta zigortzaile izatera mugatzen zen batzuetan. Jainkoari esker, Jainkoaren aurpegi maitagarria ikusten ari

gara pixkanaka, eta gure Eliza ere gero eta abegikorragoa eta hurbilagoa izan dadin espero dugu.

«Nazaretoko Jesus, Juduen Errege» dioen gurutzeko “goiburuak” Pilatok gurutzean hiltzera zigortzeko egindako salaketa adierazten zuen (*Lk 23, 35-43*). Jesusek, gurutziltzatuta dagoenak, isekak jasoko ditu agintari juduen, soldaduen eta berarekin batera gurutziltzatutako lapur baten aldetik. Barre egingo diote denek, **ustezko errege** izateagatik. Agintariak Jainkoaren Mesia titulua aldarrikatuko dute, itxaron duten eta Daviden ondorengo den Erregearen izen hebrearra (*2 Sam 5, 1-3*). Jesusek eginak zituen mirari batzuk, bere mesias boterea, salbazio-boterea, erakuts zezaketenak, baina une horretan ez da bere burua salbatzeko gai. Soldaduek juduen erregea aldarrikatzen dute ironiaz, eta agintari juduei jarraituz, bere burua gurutzeko supliziotik salbatzeko esaten diote. Hori bera egiten du lapurrak ere; gurutzeko bere adiskideak salbatzeko eskatuko dio ironiaz. Nolabaiteko fartsa baten aurrean gaude, horren bidez, baina egia argituko da.

Jesusen mesianismoaren egia bizi duen unea eta Jesusen errealitatea serio hartzen dituen beste lapurrak argituko du. Heriotzaren unea ez da Jainkoaren Mesiaeren nahiaz eta salbazioaz burla egiteko unea. Errespetuz Jainkoaren beldur izateko unea da. Lapur onak Jesusen eta euren suplizioaren arteko desberdintasuna aitortzen du. Eurek merezia dute, euren ekintzengatik; Jesusek, ordea, ez du zigor hori merezi duen ezer egin. Lapur onak **Jesus Erreinuaren sartuko dela** onartzen du, eta berarekin oroitzeko eskatzen dio. Jesusen mesianismoaren sinesmenaren aitortza da, zirkunstantzia guztiek gezurtatzen dutela diruditenean, hain zuzen ere.

Berehalako salbamena agintzen dio Jesusek, egun hartan bertan. Harekin egotean datza salbamena. Elkarrekin gurutziltzatu izanak salbamena aurreratzen du, nolabait, batek gurutzean dagoen

horretan Mesia, munduaren salbatzailea, ikusten duenean. Hala, une latz horretan agertzen da Jainkoaren salbazioa, ez da etorkizun urrunera atzeratzen. Gurutziltzatzearen unea **Jesus Erregea tronuratz**en deneko unea da, bere dohain bikainak banatzen hasten denekoa. Harengan sinesten duenak salbazioa lortzen du. Gurutzean hilda, gizon egin zen unetik bertatik dena Aitarengandik jasotzen duen bere Seme-izaeraren misterioa betetzen du Jesusek. Obedientziatzko misterio horretan, erabat fidatzen da Aitarekin, betiko eta orain denboran ere sortzen duenarekin. Heriotzarekin, loriatze-unea ere badenarekin, izaki orotan Lehena bihurtzen da, zinez, eta Jainkoaren seme-alaba izatera iristen gara gu ere (*Kol* 1,12-20).

Kristo Erregearen jaiarekin amaitzen dugu kristauok urte liturgikoa. Haren erregetzak ez du zerikusi handirik mundu honetako sistema politikoeekin. Gurutzean hiltzea da giza triumfalismo huts oren porrotaren froga. Era berean, baina, Jainkoaren Erregetzaren etorrera adierazten du gurutzeak, gurutziltzatuarena, hain zuzen ere. Gurutzean, bere erregetza hasiko du Jainkoak, justizia ezartzen hasiko da. Haren epaiketa bekatuaren zigorra da, baina baita **salbazio eskaintza** ere, bihurtzen den bekatariarentzat. Gurutzean, Jainkoak bakeak egin ditu gizakiekin eta gizakien artean. Horixe da Jainkoaren Erreinua. Aita maitagarri gisa agertzen den Jainkoarekiko eta anaia-arrebekiko harremana beste modu batera bizitzeko aukera zabaltzen du. Eukaristiak Kristoren Erreinua, egiaren, justiziaren, maitasunaren eta bakearen Erreinua, eraikitzen lagun diezagula.

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Kristori, Bera baita gauza guztien Jauna eta Erregea:

- Elizako artzain eta kide guztiak saia daitezela beti gizadi osoa Jainkoarengana gerturatzeko eta Kristoren gurutzeaz denei bake-bidea eskaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Erlijio eta kultura guztietan ezkutuan dagoen Ebanjelioaren haziak frutu eman eta ager dadin, guztiak ezagutu dezaten Kristo dela Jauna Jainko Aitaren aintzarako. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bekatuak, atsekabeak edo ezinak harrapatuta dauden guztiak Kristoren erreinuko askatasuna ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur Kristo Erregearen festaburua ospatzen dugun guztiok izan dezagula egun batean zeruko oinordekotza, argiaren erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, Aita guztiz santua, Jaungoiko ahalguztidun betierekoa, justizian eta maitasunean Zurekin errege izatera dei egiten diguzu; entzun Zure herriaren otoitzak, atera gaitzazu ilunaldi guztietatik eta sendotu gure gogoak, Zure Semearen urratsak jarrai ditzagun, gure bizitza besteentzat emanez, Kristoren paradisuako erregetza ere partekatu dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko biziaren ogiaz janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, diren guztien Errege den Kristoren
esanezko izateaz pozten garenok
berarekin zeruko erreinuan betiko bizi gaitzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

